

Zaintzek genero-desberdintasunetan eta osasunean duten eragina  
*Los cuidados y su impacto en las desigualdades de género en salud*

Bilbo, Ibaiondo udalategia - "La Bolsa" eraikina, Pilota kalea 10  
Bilbao, Centro Municipal Ibaiondo - Edificio "La Bolsa", Calle Pelota, 10  
2019ko maiatzaren 28an - 28 de mayo de 2019

## *Hizlaria / Ponente*

---

**MARIA DEL MAR GARCÍA CALVENTE**

### **LANBIDE-ESPERIENTZIA**

---

Medikuntza eta Kirurgian doktorea, Osasun Publikoko eta Pediatriako espezialista eta Osasun Publikoko Andaluziako Eskolako (EASP) irakaslea Granadan, non irakaskuntzan, ikerketan, aholkularitzan eta nazioarteko lankidetzan baitihardu.

Haren irakaskuntza-lanean aipagarria da EASPko Genero eta Osasuneko Espezializazioko Diplomaren zuzendaritza. Granadako Unibertsitatearen berezko titulu hori 11. edizioan dago egun.

Lankidetzan dihardu, aditu gisa, Osasunaren Erakunde Panamerikarrarekin eta OMEko Europako Eskualdeko Generoaren eta Giza Eskubideen Programarekin. Nazioarteko lankidetzaproiektuetan parte hartu du Latinoamerikako hainbat herrialdetan, bereziki El Salvadorren (baita Paraguain, Nikaraguan, Brasilen eta Txilen ere).

Ikertzaile gisa, Granadako (ibs.GRANADA) Ikerketa Biosanitarioko Institutuko "Generoa, Osasuna eta Osasun Zerbitzuak" ikerketa-taldeko buru da, eta Carlos III Institutuko Osasun eta Genero Sareko kide izan zen. 30 ikerketa-proiektu baino gehiagotan parte hartu du, horietatik 19tan ikertzaile nagusi gisa. 100 argitalpen baino gehiago egin ditu; aldizkari zientifikoak, liburuak eta kapituluak.

Gaur egun, CUIDAR-SE: "Andaluzia eta Euskadiko emakume eta gizon zaintzaileen osasunaren eta bizi-kalitatearen Jarraipen Azterlana" Proiektuaren ikertzaile nagusia da. Carlos III Institutuak finantzatzen du proiektu hori.

2017. urtean, "Andaluziako Bandera" sari berezia jaso zuen, Generoaren, Osasunaren eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuen arloko Ikerketa eta Irakaskuntzaren Taldeari emandakoa.

Gaceta Sanitaria aldizkariaren editorea da, eta Osasun Publikoaren eta Osasun Administrazioaren Espainiako Elkarteko (SESPAS), HIPATIA-Osasun Publikoaren Andaluziako Elkarteko, eta MITeko (Emakume Ikertzaile eta Teknologoen Elkarte) kidea da.

Haren lan-ildoak generoko osasun-desberdintasunen azterketan eta lanketan kokatzen dira, zaintzaileen osasunean eta bizi-kalitatean genero-desberdintasunek duten eraginaren ikerketan bereziki.

**Zaintzek genero-desberdintasunetan eta osasunean duten eragina**  
*Los cuidados y su impacto en las desigualdades de género en salud*

**Bilbo, Ibaiondo udalategia - "La Bolsa" eraikina, Pilota kalea 10**  
*Bilbao, Centro Municipal Ibaiondo - Edificio "La Bolsa", Calle Pelota, 10*  
**2019ko maiatzaren 28an - 28 de mayo de 2019**

## **MINTZALDIAREN LABURPENA**

---

Lalonde Txostenak —1974. urtean jada — agerian utzi zuenez, biztanleriaren osasunaren determinatzaileak osasun-zerbitzuetatik kanpo daude gehienbat. Era berean, osasunaren zainketa gehienak osasun-sistema profesionaletik kanpo gertatzen dira, zaintza-sistema informala deiturikoaren eremuan.

Zainketa informalak senitartekoek, lagunek edo auzokideek ematen dizkiete autonomia mugatua duten pertsoneri (adingabeak, gaixoak edo mendekotasuna dutenak), laguntza horren truke diru-ordainik jaso gabe. Zainketa horiek osasun-laguntzaren izozmendiaren oinarri handi bat osatzen dute, lan horri ematen zaion denboraren zati bat baino ez baitugu ikusten. Zainketa gehienak ikusezinak dira, oro har, gizartearentzat eta osasun-sistemarentzat, eta bereziki haren profesionalentzat. Zaintza-sistema informal horretako zaintzaile gehienak emakumeak dira; horrela, emakumeek osasunean duten ikusezintasunaren paradigmatzat jo daitezke aipatutako zainketa informalak.

Hitzaldi hau bi ideia nagusiren inguruan egituratzen da:

- Emakumeek, zaintzaile informal nagusiak baitira, ekarpen berezia egiten dute pertsonen eta populazioen mantentzean eta zaintzan, batez ere ahulenei dagokienez. Ekarpen horiek kostu handia dute, haien bizitzetan —bereziki osasunean— duten eraginagatik.
- Zainketen eta emakumeek osasuna mantentzeko egiten duten ekarpenaren ikusezintasuna eta zainketa horiek emakumeen bizitzan eragiten duten inpaktua osasunaren arloko genero-desberdintasunen adierazgarri garbiak dira.

Patriarkatuaren adierazpen nagusia emakumeak eremu pribatura, zaintzara eta amatasunera mugatzea da. Horregatik, zainketen eremua eta ugalketa-lana (hori gabe bizitzak ezingo luke iraun) emakumeek ikusezin, mugatu eta baztertuta jarraitzen duten eremu nagusia da. Arlo hori da, gaur egun ere, emakumeak plazara eramateko iraultzari gogorren aurka egiten diona.

**Zaintzek genero-desberdintasunetan eta osasunean duten eragina**  
***Los cuidados y su impacto en las desigualdades de género en salud***

**Bilbo, Ibaiondo udalategia - "La Bolsa" eraikina, Pilota kalea 10**  
***Bilbao, Centro Municipal Ibaiondo - Edificio "La Bolsa", Calle Pelota, 10***  
**2019ko maiatzaren 28an - 28 de mayo de 2019**

**MARIA DEL MAR GARCÍA CALVENTE**

## **EXPERIENCIA PROFESIONAL**

---

Doctora en Medicina y Cirugía, especialista en Salud Pública y en Pediatría, y profesora de la Escuela Andaluza de Salud Pública (EASP) en Granada, donde realiza labores de docencia, investigación, consultoría y cooperación internacional.

En su labor docente cabe destacar la dirección del *Diploma de Especialización en Género y Salud de la EASP*, título propio por la Universidad de Granada, actualmente en su 11ª edición.

Colabora como experta con la Unidad de Género y Salud de la Organización Panamericana de la Salud y con el Programa de Género y Derechos Humanos de la Oficina Regional para Europa de la OMS. Ha participado en proyectos de cooperación internacional en diversos países de Latinoamérica, especialmente en El Salvador (también en Paraguay, Nicaragua, Brasil y Chile).

Como investigadora lidera el grupo de investigación "Género, Salud y Servicios Sanitarios" del Instituto de Investigación Biosanitaria de Granada (ibs.GRANADA) y formó parte de la Red de Salud y Género del Instituto Carlos III. Ha participado en más de 30 proyectos de investigación, en 19 de ellos como investigadora principal. Es autora de más de 100 publicaciones en revistas científicas, libros y capítulos.

Actualmente es la investigadora principal del Proyecto CUIDAR-SE: "Estudio de Seguimiento de la salud y la calidad de vida de mujeres y hombres cuidadores en Andalucía y País Vasco", financiado por el Instituto Carlos III.

En 2017 recibió la Distinción Especial "Bandera de Andalucía" al Grupo de Investigación y docencia en Género, Salud, Servicios Sanitarios y Sociales de la Escuela Andaluza de Salud Pública.

Es editora asociada de la revista Gaceta Sanitaria y miembro de la Sociedad Española de Salud Pública y Administración Sanitaria (SESPAS), de HIPATIA-Sociedad Andaluza de Salud Pública y de AMIT (Asociación de Mujeres Investigadoras y Tecnólogas).

Sus líneas de trabajo se centran en el análisis y abordaje de las desigualdades de género en salud, y especialmente en la investigación de las desigualdades de género en el impacto de cuidar sobre la salud y calidad de vida de las personas que cuidan.

Es madre de una hija y dos hijos.

**Zaintzek genero-desberdintasunetan eta osasunean duten eragina**  
*Los cuidados y su impacto en las desigualdades de género en salud*

**Bilbo, Ibaiondo udalategia - "La Bolsa" eraikina, Pilota kalea 10**  
**Bilbao, Centro Municipal Ibaiondo - Edificio "La Bolsa", Calle Pelota, 10**  
**2019ko maiatzaren 28an - 28 de mayo de 2019**

## RESUMEN DE LA INTERVENCIÓN

---

El Informe Lalonde mostró –ya en 1974– cómo los determinantes de la salud de la población se encuentran mayoritariamente fuera de los servicios sanitarios. De igual manera, la gran mayoría de los cuidados de salud se producen fuera del sistema de salud profesional, en el ámbito de lo que se ha dado en llamar el sistema informal de cuidados.

Los cuidados informales son prestados por familiares, amistades o vecindario a las personas con limitación de su autonomía (menores, enfermas o dependientes) sin que medie retribución económica a cambio de la ayuda que ofrecen. Estos cuidados constituyen una gran base del iceberg de la atención a la salud, del que solo vemos una mínima parte del tiempo dedicado a este tipo de trabajo. La mayoría de los cuidados permanecen invisibles para la sociedad en general y para el sistema sanitario y sus profesionales en particular. Las mujeres son las principales cuidadoras de este sistema informal de atención, de tal manera que los cuidados informales se pueden considerar el paradigma de la invisibilidad de las mujeres en la salud.

Esta conferencia girará en torno a dos ideas principales:

- Las mujeres, que son las principales cuidadoras informales, aportan una contribución esencial al mantenimiento y cuidado de la salud de las personas y de las poblaciones, especialmente de las más vulnerables. Y esas contribuciones suponen un alto coste en términos de impacto para la vida de las mujeres, y especialmente para su salud.
- La invisibilidad de los cuidados y de la contribución de las mujeres al mantenimiento de la salud, así como del impacto que estos cuidados suponen para la vida de las mujeres, constituyen un claro exponente de las desigualdades de género en salud.

El patriarcado tiene como principal expresión el confinamiento de las mujeres al ámbito de lo privado, al cuidado y a la maternidad. Por eso el ámbito de los cuidados, el trabajo reproductivo sin el cual no sería posible el sostenimiento de la vida, es el terreno por excelencia en el que las mujeres siguen invisibilizadas, recluidas y excluidas. Es ese el ámbito que más se resiste, aún hoy día, a la revolución visibilizadora de las mujeres.